

5 GAIA Testu-genero eta diskurtso mota ezberdinen irakaskuntza.

Argudiozko testuak

1. Argudiozko diskurtsoaren zedarriketa.

- 1.1. Definizio zenbait
- 1.2. Argudiapen-egoera definitzeko
- 1.3. Argudiozko testu genero ezberdinak
- 1.4. Zenbait argudio testuren "gainegitura"
- 1.5. Kontrargudiaketa euskaraz
- 1.6. Argudiozko testuetan ageri diran unitate linguistikoak.

2. Argudiozko testuen ikasketa.

- 2.1. Argudiaketa eta bere balio pedagogikoak
 - 2.2. Argudiaketaren garapena.
 - 2.3. Argudiaketaren irakaskuntza goiztiarra posible da. (Dolz, 1993)
 - 2.4. Didaktika esperimental eta argudiaketaren irakaskuntza frantsesez. (Dolz, 1994);
 - 2.5. Euskarazko saio esperimental bateko zenbait datu (Idiazabal & Larringan 1996)
-

1. Argudiozko diskurtsoaren zedarriketa.

1.1. Definizio zenbait

“Bestearen pentsamenduarekin solastea haren iritzia eraldatzeko asmoarekin”

- Argudiozko diskurtsoa eta argudiozko testua
- Argudiozko diskurtsoak beti izango ditu argudioak, iritzi bat indartu edo kontrajartzeko; kontrargudioak bestearen iritziak ezereztu edo kontrajartzeko

1.2. Argudiapen-egoera definitzeko

- Hartzailea zerbaitetaz konbeztiaztea du helburu; nolabait haren iritzia aldaraztea.
 - Bakarka kudeatua izan arren (idatzian esaterako) beti da dialogikoa. Ascombe eta Ducrot-entzat hizkuntza oro da argudiozkoa.
 - Eztabaida gaia, ikuspuntu bat defendatzea, konbeztiaztea, iritziak edo jarrerak aldaraztea, bestearen ikuspuntua kontuan izatea hura aldatu nahi bada,
 - -Iritzia eman, Iritziari eutsi, arrazoitu, justifikatu
 - - Bestearen iritzia aurrikusi modu zabalean bederen
 - -Kontra argudiatu (bestearen ikuspuntutik abiatuz), atzera bota bestearen arrazoiak
 - - Argudio ezberdinen planifikazioa eta euren lotura aurrikusi
 - -Negoziatu , bestarekin erdi bide bat adostu
-

1.3. Argudiozko testu-genero ezberdinak.

Gaiaren eta leku-sozialaren arabera oso testu-genero ezberdinak bildu ditzakegu diskurtso-mota honen barruan.

- Komunikabideetako eta bestelako tesu sozial zenbait: Egunkarietako editorialak, Zuzendariari gutunak, Iritzi artikuloak, Instantziak, Propaganda, Bandoak,...
 - Familia gunekoak: Eskaera gutunak, barkapen gutunak, errekomentazioak, arbuiaketak,...
 - Eskola gunekoak: Buruketetako enuntziatuak, Baieztapen zintifikoak, Mintzaldiak,...
 - Literatur eremukoak: Kritika literarioko iruzkinak, literatur erreseinak, errefrauek,...
-

1.4. Zenbait argudio-testuren gainegitura.

Argudiaketa egiturak bi atal nagusi ditu:

- a) Indartu nahi den iritzia (konklusioa);
- b) Iritzi hori justifikatzeko balio duten arrazoiak (argudioak)

ARGUDIOZKO MUGIMENDUAREN OINARRIZKO ESKEMA (Adam, 1990, 1995)

DATOA _____	ARGUDIOAK _____	KONKLUSIOA _____
(Premisak)	Argudioen indartzea	
	Bermea	
	Euskarria	

1.4. Zenbait argudio-testuren gainegitura. (2)

ARGUDIOZKO SEKUENTZIA (Adam, 1995)

AURREKO DATOAK
TESIA (premisak)

ARGUDIOZKO
EUSKARRIA

"beraz" KONKLUSIOA
"ondorioz" TESIA (berria)
"Baldin eta"
MURRIZKETA

P. arg. 0 P. arg1

P. arg.2

P. arg.3

P. arg.4

Adibidez:

- ❑ P. arg.0: Hamasei urteko gazteek ezin dute autoak gidatzeko baimenik izan.
- ❑ P. arg.1: EEBBtan badute
- ❑ P. arg.2: 16 urteko gazteak lanean hasi daitezke
- ❑ P. arg.3: 16 urteko gazteak karneta izan dezakete
- ❑ P. arg. 4: Baldin eta alkoholari eta indarkeriari emanak ez badaude.
- ❑ ~~Ez da, ordea, beti lineala izaten. Konklusiotik has daiteke. P.arg.0 esan gabe gera daiteke.~~

1.5. Kontrargudiaketa

- KONTRA-ARGUDIAKETAREN ESKEMA
 - "p bai, baina, halere, q"
 - Adibidez:
 - p. Egia da gaurko gazteek aukera ugari eta askatasun handia dutela (bai).
 - q. Nolanahi ere (baina) lanik eta dirurik ez dutenez gurasoen erabakien menpe bizi dira.
 - **1.5. Kontra-argudiaketa euskaraz.
(Ikus Larringan 1992b)**
-

7.1.6. Argudiozko testuetan ageri diran unitate linguistikoak.

- Argudiozko testuaren **egiturari** loturikoak zenbait antolatzaile bereiz daiteke. Horien artean **aurkaritzakoak** (*baina, aldiz, ordea, ostera,...*); **kausazkoak eta ondoriozkoak** (*-lako, bait-, -(e)nez +(gero)*); **lerrozko integratze markatzaileak (distributiboak?)**: *lehenbizi, bestalde, arabera, aldetik, dagokionez, gainera, ...*); **ondoriozkoak** (*beraz, bada, hortaz*) etabar.
 - Kontutan hartu behar dira baita ere, **lexikozko** hainbat baliapide kohesio eragile direnak: antinomiak (*erraz/zail, hotz/bero,...*), osagarriak (*andra-gizon; luze/zabal,...*) oposaketa erlatiboak (*irakasle/ikasle, erosle/saltzaile, aurre/atze*) etabar.
 - (Euskarazko testu antolatzaileei buruzko lanik osatuena Larringanek (1996) egindako tesia dugu dudarik gabe eta bertan aurki ditzakegu unitate hauei buruzko informaziorik zabal eta zehatzena.)
-

1.6. Argudiozko testuetan ageri diran unitate linguistikoak.(2)

- Argudiaketaren **izaera dialogikoari** (edo polifoniari) loturikoak berriz, **deiktiko pertsonalak**, pertsona izenordeen agerrera sujetu errolean, **egitura ezpertsionalak** ere oso adierazgarriak izaten dira. Beste hainbat antolatzaile ere aipatu polifoniaren bideragile dira: *bai baina, gainera, batez ere, bederen, nik neuk, nigatik,*
 - **Ezeztapenezko** eta **galderazko** esaldiak ere oso sarri ageri dira argudiaketan ; **harridurak** eta beste hainbat elementu **erretoriko** ere bai.
 - **Metadiskurtsozko** elementuak ere oso sarri ageri dira testu genero honetan. Lexiko mailan, "aditz subjektibo" deituak: *desiratu, uste izan, nahi izan, beldur izan,* eta beste hainbat aditz zein izen: *Iritzia, ustea, azaldu, akordio, adostasun , ezadostasun, arrazoi, defendatu, ...*
-

2. Argudiozko testuen ikasketa.

- **2.1. Argudiaketa eta bere balio pedagogikoak (Dolz, 1995)**
 - - Heziketa etikoa eta kritikoaren bitarteko nagusia
 - - Ahozko nahiz idatzizko espresioaren baliapide garrantzitsua.
 - Arazo pedagogikoak ere sor ditzake argudiaketaren irakaskuntzak:
 - . Ikasleak eztabaidetan sartzeari onartzen ote du gizarteak?
 - . Iskanbila, istilu iturri izan daiteke argudiaketa
 - . Eskolari eskatzen zaion neutralitatearen barruan onart ote daiteke argudiaketarako prestakuntza?
 - . Etikoki onargarria ote da "hartzailea" konbentziazteko teknikak ikasleei irakastea?
 - . Arg. irakastea, ustekabea, kontradizioa, norberaren irudia agerian jartzea da.
-

2. Argudiozko testuen ikasketa.

(2)

- Baina argudiatzen ikasteak norberaren iritziari eusten jakitea ezezik, beste gauza asko esan nahi du: argudiatzaileak bere helburua lortu nahi badu hainbat gauza egiten ikasi beharko du:
 - a. Istilugarria izan daitekeen gai batean iritzi ezberdinak egon daitezkeela ikasi
 - b. Iritzi ezberdinak eztabaidatzeko argudio ezberdinak erabili.
 - c. Eztabaidatutako gaian bere iritzi propioa izaten ikasi.
 - d. Besteen argudioak baloratu.
 - e. Bere iritzia arrazoitu (justifikatu) argudio egokiekin.
 - f. Argudioak zentzuz eta zuhur erabili.
 - g. Besteen sentimenduak erakartzeko trebeziak erabiltzen ikasi.
 - i. Kontrakoaren argudioak aintzakotzat hartu eta aurka egiten ikasi.
 - j. Kontrakoaren argudio batzuk, kontzesio gisara, onartu.
 - k. Konpromezuzko irtenbideak negoziatzen ikasi.
-

2.2. Argudiaketaren garapena.

- Ikerketa psikolinguistikoan arabera argudiaketa berandu garatzen den diskurtso mota da.
 - Golderek (1992) bi eragiketa nagusiren garapenaren baitan azaltzen du: justifikazioa eta negoziatioa.
 - Argudiaketaren eragiketarik arruntena eta goiztiarrena **justifikazioa** litzateke: norberaren iritzia eman eta hari eusteko arrazoiak (argudioak) ematera daramana. Argudioak bat bestearen indargarri izan behar dute eta **indartze (etayage)** eragiketa hau ere ez da bat-batean ematen. Bost pauso bereizi dituzte indartze edo apoiatze eragiketaren garapenean (Coirier & Golder, 1991)
 - 1) Norberaren iritzia ere ez da adierazten esplizituki.
 - 2) Iritzia adierazi bai baina argudioz indartu ez
 - 3) Iritzia adierazi + argudio bat eman
 - 4) Iritzia adierazi + 2 argudio gutxienez
 - 5) Iritzia adierazi + 2 argudio lotu eman
-

2.2. Argudiaketaren garapena.

(2)

Bestalde, ematen diren argudioak **onargarriak** izan behar dute solaskidearentzat ere. "Eskolako uniformerik ezin da onartu neri egunero erropak aldatzea gustatzen zaitelako" ez litzateke onargarria, bai ordea, "Uniformerik ez da jarri behar aste osoan erabiliz gero oso zikina bukatuko lukeelako".

Argudiaketaren eragiketarik zailena, berantiarrena, **negoziaketa** litzateke. Negoziaketak, azpieragiketa batzuk suposatzen ditu: norberaren iritzia **distantzia edo urruntasun** batez begiratzeko gai izatea eta enuntziatzailea bera dela adieraztea. "nere ustez...". Bestalde, **axiologizatze edo baieztapen** esplizitoak ere egin behar dira bere iritzia zein den adierazteko "astakeria da..." "argi dago...". Azkenik, norberaren iritziak **modalizatu** egin behar dira solaskideak argudioen balioa eztabaidatzeko aukera izan dezan "erabateko astakeria da ..."

Adinez-adineko emaitzak:

- 6/7 urte aurretik: %90ak argudio bat gutxienez ematen du.
- 14 urte behar 5. mailako justifikaziora heltzeko
- 13/14 urterekin hasten dira negoziaketaren lehenengo adierazpenak.
- 16/17 urte behar negoziaketa osora heltzeko.

2.3. Argudiaketaren irakaskuntza goiztiarra posible da (Dolz, 1993)

- Dolzek Lehen heziketan bertan (2. mailan edo) argudiaketa irakasten hasi daitekeela baieztatzen du
 - - Adin horretako haurrentzat , familiako nahiz lagunarteko solasetan hizkuntz eginkizun arrunta delako.
 - - Ahozkoan, aurrez-aurreko eztabaidan, askoz ere errezagoa gertatzen da idatzizko bakarrizketan baino.
 - - Narrazioa eta deskribapena erakutsiz argudiaketa ez delako ikasten
 - - Argudiozko testuen ekoizpenetan saiatzeak irakurketaren ulermena ere asko hobetzen duelako.
-

2.4. Zenbait jakingarri argudiaketaren irakaskuntzari buruz.

- - Gutxi irakatsi izan da
 - - Haurrek ipuinak ez diren testuak ere maite dituzte.
 - - Gaztetandik, haurra kapaz da bere ikuspuntua (aburua) mantentzeko, berari axola zaion zerbaitetan; izan ere, eta aurrez-aurreko eztabaidetan, maiz hartzen dute parte. Adibidez, asteburuko sariaren eskaera indartzeko, senide artean etxeko lanak partitzeko,...
 - - Zailagoa da askoz, idatziz, gutun batetan adibidez, argudio testu bat ekoiztea. Izan ere, menderatu beharreko eginkizunak ez dira errazak. Gogora ditzagun berriro:
 - - Hartzaillearen iritzia aurrikusi behar du
 - - Bere ikuspuntua arrazoitu eta indartu argudioen bitartez
 - - Kontrako argudioak gainditu, baliogabetu
 - - Argudioak planifikatu: lerrokatu eta elkarlotura eman
 - - Denek onar dezaketen iritzi bat negoziatu, aurrera eraman.
 - - Eskolan ez da iritziaren adierazpenik egiteko aukerarik ematen. Ipuinen bidez bakarrik agertzen dira juzkuak. Liskarren konponbideak gutxitan bideratzen dira eztabaida zuzenaren bitartez. Zehar-bideak gogokoago ditu eskolak.
 - - Irakurketa menderatzeko testu mota ezberdinak landu beharra dago. (Aniztasuna!)Baina irakurtaraztea ez da aski. Izan ere, argudiaketak berarizko trebeziak lantzea eskatzen du.
 - Irakurketa eta idazketa loturik joan behar dute eta hartarako egoera esanguratsuak eskeini behar dira hizkuntzaren didaktikan eta irakaskuntzan orohar.
-

BAIN, D. (1994): Problemas psicopedagógicos de la lengua oral: las lecciones una experiencia. CLE-21, 91-116.

- COTTERON, J. (1995) ¿Secuencias didácticas para enseñar a argumentar en la escuela primaria?, C. L. & E. 26, 79-94.

- CUENCA, M.J. (1995) Mecanismos lingüísticos y discursivos de la argumentación, C. L. & E. 26, 23-40.

DOLZ, J. (1993) Pour un enseignement précoce de l'argumentation. Journal de l'enseignement primaire, 43, 18-21.

- DOLZ, J. (1993b) La argumentación en la escuela. Cuadernos de Pedagogía 216, 68-70.

- DOLZ, J. (1994a) La interacción de las actividades orales y escritas en la enseñanza de la argumentación, CLE, 23, 17-28

- DOLZ J. & PASQUIER A. (1996) Argumentar para convencer. Una secuencia didáctica para el primer ciclo de la educación secundaria obligatoria,, Gobierno de Navarra, Dep. de Educación y Cultura, Pamplona.

-DOLZ J. & PASQUIER A. (2000) Escribo mi opinión. Una secuencia didáctica de iniciación a los textos de opinión para el tercer ciclo de la educación primaria,, Gobierno de Navarra, Dep. de Educación y Cultura, Pamplona.

-- GARZIA AZKOAGA, I. (1999) Erlazio anaforikoak argudiozko testuetan, in Idiazabal I.& Larringan, L.M.(Ed.) (1999) Koherentzia, kohesioa eta konexioa: Testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza, Vitoria-Gasteiz: UPV-EHU-Arabako Foru Aldundia.

- IDIAZABAL I. & LARRINGAN, L.M.(1998) Experiencia didáctica para el aprendizaje de destrezas argumentativas escritas en un programa bilingüe. in M. Pérez Pereira (Ed.) Estudios sobre la adquisición del castellano, catalán, euskera y gallego. Universidad de Santiago de Compostela. 425-442.
- IDIAZABAL I. & LARRINGAN, L.M. (1997) Transfert de maitrises discursives dans un programme d' enseignement bilingue basque-espagnol, AILE, 10, 107-126.
- LARRINGAN, L.M. (1990) Azterketa bateko testu antolatzaileak, in I. Idiazabal (Ed.) Hizkuntzaren Psikopedagogia. Bilbao, Labayru.(131-148)
- LARRINGAN, L.M. (1992) Zenbait argudio-testu euskaraz. Azterketa eta didaktikarako ohar batzuk. in I. Idiazabal (Ed.) Pedagogia del texto.Testuaren Pedagogia, Bilbao, Labayru .(97-112)
- LARRINGAN, L.M. (1992) Argudio-bidezko testuen ebaluaketa. in I. Idiazabal (Ed.) Pedagogia del texto.Testuaren Pedagogia, Bilbao, Labayru . (113-126)
- LARRINGAN, L.M. (1995) Testu-antolatzaileak bi testu-motatan: testu informatiboan eta arguadiapen-testuan. UPV -EHU, Doktorego Tesia.
- SCHNEUWLY B. (1988) Le langage écrit chez l' enfant, Paris: Delachaux et Niestlé.
- SCHNEUWLY B. & DOLZ, J. (1987) La planification langagière chez l'enfant, Revue Suisse de Psychologie, 1/2, 55-64, Berna.